

ERROIBAR

Erroibar-Orreagako zizen eta Basoko Produktuen aprobetxamendu eremuaren Ordenantza arautzailea. Behin betiko onspena

Erroibarko Udalak, 2016ko abenduaren 23an egin bilkuran, Erroibar-Orreagako zizen eta basoko produktuen aprobetxamendu eremua arautzen duen ordenantza hasiera batean onetsi zuen (2017ko urtarrilaren 31ko 21 zk. duen Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

Jendaurreko epean alegaziorik aurkeztu ez denez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoarekin bat, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatua, aipatu ordenantza behin betiko onetsi da, eta testua oso-osorik argitaratzea xedatu da, behar diren ondorioetarako.

Erroibarren, 2017ko abenduaren 13an.–Alkatea, Enrique Garralda Erro.

**ORDENANTZA ARAUTZAILEA ERROIBAR-ORREAGAKO ZIZEN
ETA BASOKO PRODUKTUEN APROBETXAMENDUAREN EREMUA****ZIOEN AZALPENA**

Erroibarko, Aurizko eta Orreagako Udalak eta Aintzioako, Bizkarreta-Gerendiaingo, Erroko, Esnozko, Aurizberriko, Lintzoaingo, Mezkirizko, Orondrizko eta Zilbetiko kontzejuak baso-eremu garrantzizkoan daude, mikologiaren aldetik oso aberatsa eta biltzaile asko erakartzen duena. Gure mendietako zizek interes handia piztu dute jendearengan azkeneko urtetan eta gero eta biltzaile gehiago daude. Eremu anitzetara ibilgailuz iristeko erraztasunak eta bilketa, zenbaitetan, behar bezala ez egiteak, presio handia eragin duten natur ingurunean. Hortaz gain, zizak baliabide endogeno gisa hartuta, gure eskualdeko garapenari ekarpenik egin gabe ateratzen diren baliabidea dira.

Nafarroako Mendien Erregelamenduak (52/1992) dio zizen bilketa baso aprobetxamendua dela, eta mendiko jabeak, mendiko baliabideen jabe den neurrian, zizen bilketa sustatu dezakeela baita eskubide osoz gauzatu ere.

Kudeaketa Plan Mikologikoa egin ondoren (<http://www.erro.es/archivos/538>), hiru udalek eta 9 kontzejuak bilketa arautua elkarrekin garatzea erabaki dute, helburu hauek kontuan hartuta:

1. Masifikazioa eta zizen, onddoen eta gainerako produktu naturalen neurrigabeko bilketa saihestea.
2. Diru-sarrera zuzenak sortzea arautzearen autofinantzazioa lortzeko.
3. Baliabide mikologikoaren bidez tokiko enplegua sustatzea, landa garapen jasangarriaren baitan.

Aipatutako plana egoki garatzeko, lehen errandako udal eta kontzejuetako mendietako zizen, onddoen eta gainerako baso produktuen aprobetxamendua arautzen duen Ordenantza hau onartu da.

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Araudiaren eremua eta eredia:

a. Barruti honetan sartutako onura publikoko edo oihan ondareko mendietako zizen, onddoen eta gainerako produktu naturalen aprobetxamendua Erroibar-Orreaga Parke Mikologikoaren kudeaketa ereduaren bitartez arautuko da (ikus barrutiaren mapa 1. eranskinan)

b. Jarraipen Batzorde batek barrutiaren kudeaketaren kontrol publikoa eginen du. Batzordea horrela osatuko da:

1. Erroibarko Udala.
2. Erroibarko Kontzejuetako ordezkariak.
3. Aurizko Udala.
4. Orreagako Udala.
5. Enpresa kudeatzailea.

b. Jarraipen batzordeak parke mikologikoaren funtzionamendu arauak onetsiko ditu urtero. Arau horiek ordenantza honetan oinarrituko dira; hala ere, aldaketak egin ahalko dira, urteko ebaluazioak kontuan hartuta eta Kudeaketa Plan Teknikoan ezarritako helburuak betetze aldera.

c. Barrutiaren mugak behar bezala seinaleztatuko dira, zizen, onddoen eta gainerako produktu naturalen barrutiak seinaleztatzeari buruzko 1994ko apirilaren 25eko Foru Agindua betetzeko.

2. artikulua. Barrutiaren arau orokorrak:

a. Biltzaile bakoitzak gehienez ere 8 Kg ziza eta/edo onddo bil ditzake eguneko.

b. Biltzaile orok biltzeko baimena izan behar du urteko edozein egunean zizak eta onddoak biltzeko.

c. Adin txikikoak: 14 urtez behitikoak ez daude beharturik biltzeko baimena edukitzera, hala ere, zizak biltzeko baimena duen heldu batekin joan beharko dute, hura izango baita arduraduna. 14 urtetik goiti duten adin txikikoek gurasoen baimena behar dute biltzaile baimena eskuratzeko.

3. artikulua. Gainerako baso-produktuei dagokienez:

a. Basoko gainerako produktu naturalen (patxaranak, gaztainak, masustak, sendabelarrak, etab.) bilketak ekosistemaren oreka kaltetuko balu, zizak eta onddoak biltzeko ordenantza honetan ezarritako baimen berbera jarri ahalko da.

b. Produktu horien aprobetxamenduaren arautegi espezifikoa barrutiaren jarraipen batzordearen eskariz garatuko da.

4. artikulua. Biltzeko baimenak:

a. Zizak biltzeko baimenek haren titularrari eskubidea ematen diote araututako basoetan ziza, onddo eta gainerako produktu naturalen espezieak biltzeko (Ikus espezieak 2. Eranskinen), baimen mota bakoitzean ezarritako indarraldiaren eta kopuruaren arabera. Jarraipen batzordeak Eranskinen zerrenda aldatu ahalko du. Modu berean Parke Mikologikoaren zerbitzuak erabiltzeko eskubidea ematen dio, baldintza beretan.

b. Baimenaren frogagarria ibilgailuaren aginte-mahaiari jarri beharko da, barrutiaren gaineko kontrola eta jarraipena errazteko. Frogagiriak zura ematen ez duten oihan aprobetxamenduen egiaztagiritzat balioko du (zizak, onddoak eta produktu naturalak).

c. Baimenaren titularrak parke mikologikoaren funtzionamendu arauak jasoko ditu, eta, betetzen ez badira, baimenak indarra galduko du.

d. Araututako mendietan bildutakotzat joko dira mendi horietan sartzeko oihan pistetan biltzaile orok bere ibilgailuan daramatzan ziza, onddo eta produktu natural guztiak.

e. Biltzailearen baimena pertsonala eta besterenezina da. Titularrak gainean eraman beharko du ziza, onddo eta gainerako produktu naturalak biltzen ari den aldi oro. Baimenarekin batera, nortasuna ziurtatzeko agiri bat eman beharko du eta huraxe erakutsi beharko du barrutiko langileek edo agintari eskudunek eskatzen dioten aldi bakoitzean.

5. artikulua. Baimen motak (arruntak):

a. Eguneko baimena: 5 euro eguneko. Salbuespeneko kasuetan, biltzaile gehiegi aritzeak aprobetxamenduaren iraunkortasuna arriskuan jar badezake, biltzaileak eremuka banatu ahalko dira baita eguneko baimenik ez saldu ere.

b. Urteko baimena: 3 baimen mota egonen dira:

1. Urteko egun guztietarako baimena: 80 euro urteko.

2. Astelehenetik ostiralerako baimena, jaiegunak izan ezik: 50 euro urteko.

3. Larunbat, igande eta jaiegunetarako baimena: 50 euro urteko.

Urteko baimenek ekainaren 1etik hurrengo urteko ekainaren 1a arte izanen dute indarra. Urteko baimena galduz gero, kopia bat kudeatzeko eta egiteko prezioa 10 eurokoa da.

6. artikulua. Baimen bereziak:

a. Bizilagunentzako baimena: urteko egun guztietarako, 10 euro balio du (erroldatuak). Baimen hori emateko ez dago mugarik, hura indargabetuko duen arau hausterik egiten ez den bitartean. Biztanletzat joko dira baldintza hauek betetzen dituzten herritarrak:

1. Udal Biztanleen Erroldan izena emanda egotea, gutxienez urte beteko antzintasunarekin.

2. Udalerrri hauekiko zerga-betebeharrak eguneratuak izatea.

b. Baimen zientifiko-hezigarria: baimen hau beharko da gehienez onddo espezie orotako 5 ale biltzeko, lagun eta egun bakoitzeko. Bilketaren helburuak frogatu beharko dira. Urtekoa edo eguneko izan daiteke. DOAN.

7. Artikulua. Biltzeko arauak:

a. Biltzeko ordutegia: debeku da gauez biltzea, eguzkia sartu baino ordubete lehenagotik eguzkia atera eta ordubete pasatu arte.

b. Biltzeko eremuak: debeku da biltzea parke Mikologikoak edo jabeek seinaleztatutako erreserbetan edo arrisku eremuetan (zuhaitzak eror daitezkeelako, baso lanak egiten ari direlako, ehiza-taldean ari direlako edo bertzelako arrazoiak tarteko).

c. Tresnak: Galarazia dago eskuareak erabiltzea, baita lurraren humus-geruzari, onddo-mizelioari eta landaretzaren sustraiei kalte egin diezaieketen bestelako tresnak ere.

d. Gutxienezko neurriak: oro har, bil daitezkeen ziza eta/edo onddoen txapelak gutxienez 4 cm-ko diametroa izan behar du. Espezieotako aleek gutxienez 2 cm-ko diametroa izan behar dute: *Marasmius oreades* (*Marasmius* jangarria), *Cantharellus cinereus* (Saltsa-perretxiko aranusaina), *Cantharellus cibarius* (Ziza horia), *Cantharellus lutescens* (Saltsa-perretxiko horia), *Cantharellus tubaeformis* (Saltsa-perretxiko horiluna) eta *Craterellus cornucopioides* (Saltsa-perretxiko beltza). Ez da zilegi *Amanita caesarea* (Gorringoa) espeziearen arrautza itxiak biltzea; hau da, karpoforoa errezelaren barruan itxita dagoela.

8. artikulua. Gomendioak:

a. Bil daitezkeen zizak: ezagutzen diren espezieak bakarrik biltzea gomendatzen da. Zalantza izanez gero, ale gutxi oso batzuk hartu eta mikologo aditu bati argibideak eskatzea gomendatzen da, interes gutxiko zizen bilketa eta balizko intoxikazioak saihesteko.

b. Zizen bilketa eta garraioa: gomendatzen da tokian bertan zizak garbitzeko nabalak erabiltzea, eta saskietan edo euskarri zurrunetan eramatea, plastikozko poltsak saihestuz.

c. Zizen egoera: ale ustelduak, hautsiak eta hondatuak errespetatu behar dira, baita bilketa gai ez diren aleak ere.

9. artikulua. Bideen erabilera:

a. Ibilgailuak sartzea: biltzeko baimenaren errezibuak zura ematen ez duen oihan aprobetxamenduaren (zizak eta onddoak) egiaztagiritzat balio du. Hortaz, baimena erosteak oihan aprobetxamenduak egiteko baimendutako oihan pistetatik ibilgailuak ibiltzeko balio du, baina mendiaren jabeak jar ditzakeen aldi bateko zein behin betiko debeku zehatzei loturik dago. Bertze aldetik, oihan pistetan ibilgailu gutxiago ibiltzeko, biltzaileek ibilgailuak partekatzea sustatuko da, baita oinez edo motorrik gabeko bertze garraibideez bilketa-eremuetara iristea ere.

b. Ibilgailuak aparkatzea: berariaz moldatuta dauden tokietan utziko dira, eta, halakorik ezean, pistetako bazter guneeetan, betiere bertze ibilgailuei bidea galarazten ez bazaie (auto, kamioi, traktore edo bertze batzuk).

c. Dena den, pistetatik ibiltzeko Erroibar, Auritz eta Orreagako Herriko bideen eta herri-lurretako finketara sartzeko bideen erabilera arautzen duten ordenantzetan ezarritakoa bete beharko da.

10. artikulua. Parke Mikologikoaren zerbitzuak:

a. Biltzailearen arreta: larrazkenean, Informazio Mikologikoaren Gunean biltzaileentzako arreta eskainiko da, bertan, telefonoz, posta elektronikoz edo sare sozialen bidez. Zerbitzu hauek eskainiko dira:

1. Baimenak ematea: Parke Mikologikoaren Informazio Gunea irekitzen den egun eta ordutegien barne. Parkearen web gunearen bidez baimena lor daitezkeen bertze toki batzuetako informazioa emango da.

2. Mapa-gida: Biltzaileei Parkeko mapa-gida emango zaie, parkean kokatu eta pistetatik zein errepideetatik ibiltzeko erraztasunak emateko.

3. Erakusketa mikologikoa: asteburuero zizen erakusketa txiki bat jarriko da, jangarriak diren espezieak eta horien ordezkotoxikoak ezagutzera emateko.

4. Aholkularitza pertsonala: biltzeko baimena emateaz gain, nora joan, bil daitezkeen ziza motak, eta bertzelako informazio eta aholkuak emanen dira.

b. Zizen produkzioaren jarraipena: astero parte mikologikoak eginen dira eta urtero ekoizpen mikologikoaren txostenak. Parte mikologikoak astean behin argitaratuko dira larrazkenean, eta hamabostean behin udan. Neguan eta udaberrian ez dira eginen.

c. Aprobetxamenduaren zainketa: oihan pistetan barna zaintza/aholkularitza eginen da ibilgailu/baimenen zenbaketaren bidez, arauen betetze maila egiaztatzeko. Modu berean, biltze-presioaren parteak eginen dira astero eta horren gaineko txostenak urtero.

d. Aholkularitza, ziurtapena eta zizen salerosketa: baimen-titularrek eskubidea dute bildutako zizen inguruko argibideak mikologo aditu bati eskatzeko eta zizen ziurtapena eta salerosketa egiteko zerbitzuak erabiltzeko, ezarritako ordutegiaren barne.

e. Azpiegiturak egokitu eta mantentzea: baso-kudeaketa iraunkorra sustatze aldera, parke mikologikotik bideak eta Parkeko eragin-eremuko seinaleak modu egokian mantentzen direla behatuko da.

11. artikulua. Arau-hausteen erregimena:

a. Horretarako eskubiderik gabe legez kanpoko aprobetxamendua egiten duenari 30,05 eta 300,51 euro arteko isuna jarriko zaio, legez kanpoko aprobetxamenduaren izaeraren arabera, eta kalte-ordainak eskatuko zaizkio; gainera, usurpatutako ondasun eta produktuak konfiskatuko zaizkio.

b. Zehaztapan-espeditentearen kopia Foruzaingoari eta Guardia Zibilari bidaliko zaie, erantzukizun penalik dagoen jakiteko.

c. Arau hauek betez konfiskatutako zizen eta onddoen etekin ekonomikoa barrutian hobekuntzak egiteko inbertituko da.

Arau hauetan aurreikusten ez diren egoera orotan, aplikagarri izanen dira honako hauek: Erroibarko Udalak, Aurizko Udalak eta Orreagako Udalak onetsitako gainerako ordenantzak, 13/1990 Foru Legea garatzen duen otsailaren 17ko 59/1992 Foru Dekretua (Mendien Erregelamendua), eta hura aldatu duten ekainaren 6ko 112/1994 Foru Dekretua (76 zk. duen NAO, 1994ko ekainaren 27koa) eta martxoaren 11ko 141/1996 Foru Dekretua (42 zk. duen NAO, 1996ko apirilaren 5koa).

1. ERANSKINA

[Erroibar-Orreagako zizen eta bertze baso-produktuen aprobetxamenduaren eremua](#) (PDFa).

2. ERANSKINA

APROBETXAMENDURAKO GAI DIREN ESPEZIE JANGARRIAK

| ZIZEN ESPEZIEEN ZERRENDA | | | | | |
|--------------------------|---------------------------------------|---|-----|---|---------------------|
| ZK. | LATINEZKO IZENA | IZEN ARRUNTA | ZK. | LATINEZKO IZENA | IZEN ARRUNTA |
| 1 | Agaricus albertii Bon | Champiñón, Zulzo | 42 | Lactarius deliciosus (L.ex Fr.)S.F.Gray | Niscalo, Robellon |
| 2 | Agaricus arvensis Sch.:Fr. | Champiñón anisado, Bola de nieve, Zulzo | 43 | Lactarius sanguifluus var. Sanguifluus (Paulet)Fr. | Niscalo, Robellón |
| 3 | Agaricus bernardii (Quélet)Saccardo | Champiñón, Zulzo | 44 | Lactarius semisanguifluus Heim et Lecl. | Niscalo, Robellón |
| 4 | Agaricus bisporus (Lange)Imbach | Champiñón, Zulzo | 45 | Langermania gigantea (Batsch:Pers.)Rostk | |
| 5 | Agaricus bitorquis (Quélet)Saccardo | Champiñón, Zulzo | 46 | Leccinum aurantiacum (Bull.)S.F.Gray | Hongo ruso |
| 6 | Agaricus campestris L.:Fr. | Champiñón, Zulzo | 47 | Leccinum quercinum Pilat & Dermek | Hongo ruso |
| 7 | Agaricus haemorrhoidarius Schulzer | Champiñón enrojeciente | 48 | Leccinum scabrum (Bull.:Fr.)S.F.Gray | |
| 8 | Agaricus langei (Moeller)Moeller | Champiñón enrojeciente | 49 | Lepista nuda (Bull.:Fr.)Cooke | Pie azul |
| 9 | Agaricus silvicola (Vitt.)Peck | Champiñón de bosque, Zulzo, | 50 | Lepista panaeola (Fr.)Karsten | Seta de brezo |
| 10 | Agrocybe aegerita (Brig.)Fayod | Seta de chopo | 51 | Lepista personata (Fr.:Fr.)W.G.Smith | Cabo azul, Pie azul |
| 11 | Amanita caesarea (Scop.:Fr.) | Seta de los cesares, Gorringo | 52 | Leucopaxillus candidus (Bres.)Singer | Blanquilla |
| 12 | Amanita rubescens (Pers.:Fr.)S.F.Gray | Amanita enrojeciente | 53 | Leucopaxillus giganteus (Fr.)Singer | Blanquilla |
| 13 | Armillaria mellea (Vahl:Fr.)Kummer | Pago ziza | 54 | Leucopaxillus paradoxus (Constantin & Dufour)Boursier | |
| 14 | Boletus aereus Bull.:Fr. | Onddo beltza, Hongo negro | 55 | Lyophyllum decastes (Fr.:Fr.)Singer | |
| 15 | Boletus aestivalis (Paulet)Fr. | Onddo beltza, Hongo de verano | 56 | Macrolepiota mastoidea (Fr.:Fr.)Singer | Galamperna |
| 16 | Boletus appendiculatus Sch. | | 57 | Macrolepiota procera (Scop.:Fr.)Singer | Galamperna |
| 17 | Boletus edulis Bull.:Fr. | Onddo zuri, Hongo blanco, Calabaza | 58 | Marasmius oreades (Bolt.:Fr.)Fr. Senderuela | Senderuela |
| 18 | Boletus erythropus Pers. | Onddo hankagorri, Pie rojo | 59 | Morchella (género) | Colmenillas |
| 19 | Boletus pinophilus Pilat & Dermek | Onddo beltza, Hongo | 60 | Pleurotus ostreatus (Jacq.:Fr.)Kummer | Seta ostra |
| 20 | Boletus pseudoregius (Hub.)Estades | | 61 | Pleurotus pulmonarius (Fr.:Fr.)Quélet | Seta ostra |
| 21 | Calocybe gambosa (Fr.:Fr.)Singer | Perretxiko, seta de primavera | 62 | Rozites caperatus (Pers.:Fr.)Karsten | |
| 22 | Calvatia utriformis (Bull.:Pers.)Jaap | | 63 | Russula aurea Pers. | |
| 23 | Cantharellus cibarius (Fr.:Fr.)Fr. | Rebozuelo, Ziza ori | 64 | Russula cutefracta Cooke | Gibelurdin |

| | | | | | |
|----|---|--|----|---|-------------------------------|
| 24 | Cantharellus cinereus (Pers.:Fr.)Fr. | Trompeta de los muertos | 65 | Russula cyanoxantha (Sch.)Fr. | Gibelurdin, Carbonera |
| 25 | Cantharellus lutescens Pers.:Fr. | Trompetilla amarilla, Angulas de monte | 66 | Russula heterophylla (Fr.:Fr.)Fr. | Gibelurdin |
| 26 | Cantharellus tubaeformis Fr.:Fr. | Trompetilla amarilla, Angulas de monte | 67 | Russula integra (L.)Fr. | |
| 27 | Clitocybe costata Kühner & Romagnesi | | 68 | Russula olivacea (Sch.)Pers. | Gibelurdin de 2. ^a |
| 28 | Clitocybe geotropa (Bull.:Fr.)Quélet | Urril ziza, Platera | 69 | Russula vesca Fr. | Gibelurdin |
| 29 | Clitocybe gibba (Pers.:Fr.)Kummer | | 70 | Russula virescens (Sch.)Fr. | Gibelurdin |
| 30 | Clitocybe maxima (Fr.:Fr.)Kummer | Urril ziza, Platera | 71 | Scutigera pes-caprae (Pers.:Fr.)Bond. & Sing. | Pie de cabra |
| 31 | Clitocybe nebularis (Batsch:Fr.)Kummer | Ilarraka, Pardilla | 72 | Suillus collinitus (Fr.)O.Kuntze | Boleto viscoso |
| 32 | Clitopilus prunulus (Scop.:Fr.)Quélet | Molinera, Errotari | 73 | Suillus granulatus (L.:Fr.)Roussel | Boleto viscoso |
| 33 | Coprinus comatus (Müll.:Fr.)Pers | Barbuda, Matacandil | 74 | Suillus grevillei (Klotzsch)Singer | Boleto de alerce |
| 34 | Craterellus cornucopioides (L.:Fr.)Pers. | Trompeta de los muertos | 75 | Suillus luteus (L.:Fr.)Roussel | Boleto anillado |
| 35 | Cuphophyllus pratensis (Pers.:Fr.)Bon | | 76 | Tricholoma columbetta (Fr.:Fr.)Kummer | Palometa |
| 36 | Hydnum albidum Peck | Gamuza, Lengua de vaca | 77 | Tricholoma gausapatum (Fr.:Fr.)Quélet | Negrilla, seta de pino, ratón |
| 37 | Hydnum repandum L.:Fr. | Gamuza, Lengua de vaca | 78 | Tricholoma orirubens Quélet | |
| 38 | Hydnum rufescens Sch.:Fr. | Gamuza, Lengua de vaca | 79 | Tricholoma portentosum (Fr.)Quélet | Capuchina |
| 39 | Hygrophorus marzuolus (Fr.:Fr.)Bresadola | Seta de marzo, Elurrezko | 80 | Tricholoma terreum (Sch.:Fr.)Kummer | Negrilla, seta de pino, ratón |
| 40 | Hygrophorus penarius Fr. | Llenega blanca | 81 | Xerocomus badius (Fr.:Fr.)Gilbert | Hongo bayo |
| 41 | Kuehneromyces mutabilis (Scop.:Fr.)Smith & Singer | | | | |

Gainerako espezieak: arrazoi zientifiko-didaktikoak frogatuz gero, gehienez ere onddo-espezie orotako bost ale bildu ahalko dira. Horrelakoetan baimen zientifiko-hezigarria eskuratu beharko da.

Iragarkiaren kodea: L1800203